



Roland Garros tenis-txapelketa emango du Euskaltelek, 4K kalitatean, Eurosporten

- *Maiatzaren 26tik ekainaren 9ra, Guztia TB daukaten Euskaltelen bezeroek Parisko txapelketaren emozioaz gozatzeko aukera izango dute, Eurosport 1 eta Eurosport 2 kanalek egingo duten estaldura zabalari esker.*
- *Gainera, Philippe-Chatrier pista nagusitik egunero emango dituzten bost partida ere bereizmen ultrahandian ikusi ahal izango dira, Eurosport 4K kanalean.*

Bilbo, 2024ko maiatzaren 23a.- Beste behin ere, **Guztia TB** daukaten [Euskaltel](#)en bezeroek Roland-Garros txapelketaren 123. edizioa ikusi ahal izango dute, eta irudi-kalitaterik onenarekin gainera. Zuzenean eta oso-osorik emango du Eurosportek, Paristik, **maiatzaren 26tik (igandea) ekainaren 9ra arte**.

Txapelketari buruzko informazio zabala emango dute Eurosport 1 eta Eurosport 2 kanalek (dialeko 61ean). Urteko bigarren Grand Slamak iraungo duen bi asteetan, Álex Corretja, Carla Suárez, Nico Almagro eta Anabel Medina adituak izango dira informazioburu. Gainera, egun bakoitzeko partidak amaitu ostean, *'Pasando bolas'* saioak Roland-Garrosi buruzko azken berrien analisia egingo du.

Eurosport 4K kanalak (dialeko 56an) orobat emango ditu **bereizmen ultrahandian Philippe-Chatrier** pista nagusiko lur zanpatuan jokatzeko diren partida guztiak; hala, 4K teknologiak bat egingo du telekomunikazioen euskal operadorearen sarearen kalitatearekin.

Bestalde, **sei gailutan ere** ikusi ahal izango dira partidak, eta tenis-zaleek nahi adina aldiz ikusi ahal izango dituzte partidetakoa unetik zirrargarrienak **Eurosport 1ek eta Eurosport 2k** ematen dituzten **funtzionalitate** hauei esker, besteak beste: *grabatu*, *replay* (hasita dagoen saio bat hasieratik ikusteko aukera) edo *azken 7 egunak* (azken asteko programazioa ikusteko aukera).

Sekula baino emozio handiagoa Parisko pistan

Aurtengo Roland-Garros txapelketaren emaitzen aurreikuspenak aurreko urteetakoak baino askoz zalantza gehiago eragiten ditu. Min hartuta zegoenez, **Rafa Nadalek** ez zuen parte hartu 2023ko edizioan, eta, beraz, **haren zain daude zale denak aurten**. 14 aldiz irabazi du Nadalek txapelketa hau, eta ziur asko aurten izango du azkenekoz parte hartzeko aukera. Nadalek eta **Novak Djokovic** oraingo txapelkunak altxatu dute Mosketarien Kopa txapelketaren azken zortzi edizioetan. Beste

txapeldungaiak, **Carlos Alcaraz**ek, Grand Slameko bi titulu irabazi ditu dagoeneko, baina oraindik ez da inoiz iritsi finalera Parisen.

Emakumezkoen kategorian, berriz, Iga Swiatek poloniarrek bere laugarren garaipena bilatuko du, 2020an, 2022an eta 2023an Suzanne Lenglen-en Kopa altxatu ondoren.

Udako Olinpiar Jokoen urtea egokitzen den guztietan bezala, Parisko txapelketa da Jokoetarako sailkatzeko azken aukera, hurrengo astean aukeratzen baitira parte-hartzaileak.



* *Guztia TB Agile Content-ek ematen duen telebista-zerbitzua da, OVER THE TOP NETWORKS IBÉRICA SLUK eskainia.*

Euskaltel - Komunikazioa

comunicacion@euskaltel.com

www.euskaltel.eus